


Sibila Vigna

Lauraren urtebeteze-eguna



Intermón
Oxfam



Lauraren urtebetetze-eguna



Intermón
Oxfam

Sortaren zuzendaritza: Raquel León

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Aholkularitza-batzordea: M^a Àngels Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Anna Conangla, Montse López, Juan Manuel Matos, Laura Mendoza, Elena Millá, José Palos, Ferran Polo, Vanessa Quintana, María Rico

Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Azalaren eta barruko diseinua: Lluís Torres

1. argitaraldia: 2003 ko ekaina

© Autoretza: Sibila Vigna

© Apaingarriak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel. 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 07

e-maila: info@IntermonOxfam.org

ISBN: 84-8452-204-0

Lege-gordailua: B-26.246-2003

Errelizazioa: MC producció editorial / Pàgina 98

Inprimaketa: EGS, Rosario, 2 (Barcelona)

Espainian inprimatua

“Copyright-aren” titularren onarpenik gabe, liburu honen zati edo ale osoaren ugaritzea erabat debekatuta dago, edozein delarik erabiltzen den modua edo prozedura.

Klororik gabeko paperean inprimatua

A u r k i b i d e a

Lauraren urtebetetze-eguna	4
1 • Adiskide berriak Laurarentzat	12
2 • Pastela banatzen	13
3 • Erosketak egiten	14
4 • Elur-ekaitza	15
5 • Nire familiak erosi, nire familiak saldu...	16
6 • Rose Marie eta Momena	18
7 • Munduan barrena	19
8 • Alternatibak asmatzen	22
9 • Honek aldatu beharra dauka	23
10 • Zer egin dezakezu zuk?	24

Lauraren urtebetetze-eguna



Hurrengo egunean, igandean, Lauraren urtebetetze-eguna zen. Eta Laura egun hura noiz etorriko zain zegoen aspalditik. Hamar urte betetzeko gogo bizia zeukan eta, gainera, aitaxok eta amatxok urtebetetze-egun berezia agindu zioten.

Amona Lola bera ere herritik etorria zen bere loba nagusiaren urtebetetze-eguna elkarrekin ospatzeko. Goizez iritsi zenean, maleta bete-beteta, egundoko besarkada eman zion Laurari.

Amona hunkituta zegoen:

—Kosta egiten zait sinistea... hain urte gutxi pasatu baitira nire altzoan loarazten zintudanetik. Eta dagoeneko badituzu hamar urte. Azkar doa denbora, gero!

Laurak gustura hartzen zituen laztanak eta musuak. Zein usain ona zerion amonari! Bere poltsatik herriko usain guztiak zetozen: soroko frutak eta barazkiak, belar usaintsuak, mermeladak, etxean egindako gozokiak...

Baina laburra izan zen une gozo hura. Etxezulotik, edo auskalo nondik, Juan barrabasa irten zen, —Lauraren neba gazteena, alegia— eta amonaren besoetara abiatu zen korrika. Amonak barre egiten zuen, pozik:

—Etorri hona, mutiko. Amonak denentzat ditu besoak eta.

Udan, Laura, Juan eta gurasoak herrian egiten zituzten oporraldiko egun batzuk. Baina, eskola-garaian, familiak oso gutxitan ikusten zuen amona, horregatik, etxera etortzen zenean, dena zen jai eta algara. Laurak eta Juanek presa zuten herriko adiskideen berri jasotzeko. Gero, amonak ipuin “magikoak” kontatzen zizkien, edota gaztaroko pasarteak. Amonarekin agudo joaten ziren orduak!

Baina, oraingoan, patxadaz hartu beharko dute Laurak eta Juanek, amonak eginkizunak bete arte. Gaurkoan oso lanpetuta dabilta pertsona nagusiak urtebetetze-eguneko ospakizunak prestatzen. Laurak lagundu egin nahi du, baina amatxok nebatxoarekin kanpora jolastera joateko esan dio. Juanek hiru urte baino ez ditu eta mainontzi samarra da. Aspertzen denean, negarez hasten da eta denon arreta eskatzen du. Laurak asko maite du neba txikia, baina batzuetan...



Afaldu aurretik, dena dago prest. Lorategiko zuhaitzetan paperezko argiak daude dilindan, puxikak eta serpentinak. Zukuak eta edariak hozkailuan daude, eta sukaldeko mahaian era guztietako jaki gozoak daude gonbidatuak noiz etorriko zain.

—Zein gozoak —dio Laurak hura dena ikustean.

Mota guztietako ogitartekoak, enpanadak, patata-tortillak, gaztak, hestebe-teak eta mota askotako krocketak. Gainera, amatxok ez du ahaztu Laurari hainbeste gustatzen zaion pizza, itsaski, txanpinoi, mozzarella eta guzti. Baina jai-eguneko izarra mokazko pastel erraldoia da, zalantzarik gabe, kafea eta txokolatearekin egindakoa, amona Lolaren obra nagusia. Aitaxok, berriz, kolore askotako mazedonia egin du, era guztietako frutak nahastuz. Amonaren sagar eta madariez gain, kiwiak, platanoak, marrubiak eta Laurak ezagutzen ez dituen beste fruta-klase batzuk daude. Mangoak eta papayak direla esan dio aitaxok; fruta horiek, kiwiak eta ananak bezala, urruneko herrialdetan lantzen omen dira.

—Eta pastela, beste herrialde batetik etorri al da hori ere? —galdetu zuen Juanek.

—Pastela nik egin dut, semetxo, baina txokolatea eta kafea urrunetik etorri dira, bidaia luzea egin dute —erantzun zion amonak.

Laura pentsakor geratu zen. Amatxok musu eman eta honela esan zion belarrira: —Jakingo bazenu zenbat jende lan egin duen zure urtebetetze-eguna prestatzeko!

Neskatilak jakiei begiratu eta bere artean: “Ez dakit bihar arte itxaroterik izango dudana...”.

Lo egiteko orduan, amona gabonak ematera hurbildu zitzaion lobei. Istorio bat kontatzeko eskatu zion Laurak, baina amonak urtebetetze-eguneko guraria eskatu ote zuen galdetu zion. Eta Laura harriturik:

—Zer diozu?

Orduan, ohearen ertzean eserita, sekretu bat kontatu zion amonak:



—Urtebetetze-eguneko kandlei putz egitea une magikoa da pertsonen bizitzan. Horregatik, putz egin aurretik begiak estu-estu ixten baditugu, gurari bat eska dezakegu, bihotz-bihotzetik. Ia inork kontuan hartzen ez dituen arren, basoetan eta parkeetan bizi dira urtebetetze-eguneko gurariak betearazten dituzten iratxoak. Iratxo horiek ez dira pertsonatxo errazak; beren lana egiteko, ezinbesteko baldintza bat jartzen dute: gurariak justuak izatea. Azken boladan —esan zuen amonak— kezkatu samar dabilta iratxoak. Lehen errazagoa zen neska-mutikoen gurariak betetzea. Baina gauzak gero eta zailagoak dira. Munduan arazo asko daude, eta eskatzen dituzten gurariak oso korapilatsuak dira iratxo txikientzat. Orain, ez dago dena konpontzerik, magia erabiliz; pertsonak behar dira. Gurariak bete ahal dira, baina lagundu egin behar zaie.


Laura lo hartzen ari zen ipuinaren azken hitzak entzutean.

—Bihar arte —esan zuen amonak—. Pastelaren hamar kandelatxoei putz egin baino lehen, ondo pentsatu iratxoei eskatu nahi diezun guraria.

Laura kolpez esnatu da; zalaparta entzuten da. Gonbidatuak etorri dira!, pentsatu zuen neskatilak; eta, gehiegi pentsatu gabe, ohetik irten eta korrika abiatu da etxeko atarira. Baina lorategian ez dago inor, eta goiz-argi egiten du. “Goizegi da —pentsatu zuen Laurak—, oker nabil”.

Une horretan berriro entzun dira ahotsak. Sukaldetik datozela dirudi. Aitatxo eta amatxo ote dira? Laura kontu handiz abiatu da pasillotik barrena. Sukaldeko atea itxita dago, baina, bai, ahotsak barnetik datoz eta ez dira ezagunak.

Laurak ez daki zer egin, gurasoei deitu edo entzuten geratu. Eztabaidan ari direla dirudi. Orduan, gizon baten ahotsa nagusitzen da denen gainetik. Ikaratuta, Laura ate ondora hurbildu da, barruan zer gertatzen ote da harra-patzeko. Bat-batean atea ireki da, ez baitago ondo itxita.



Laura sukaldearen erdian erori da, plaust. Pertsona batzuek harrিতта begiratzen diote. Hile luze gorribeltzeko emakume batek haserre esan zion traje griseko gizon gorbatadunari:
Ikusten, neskatxoa esnatu duzu!

Laura haiei begira dago, lurretik. Beste emakume batek —kolore ederreko jantzia soinean duela—, eskua eman eta esan zion Laurari:
—Ez beldurrik izan, laztana, inork ez dizu minik egingo eta.

Pasilloko atea itxi du norbaitek. Beste atea, patiora begira dagoena, erdi irekita dagoela erreparatu du. Bi emakumez eta traje griseko gizonaz gain, Lauraren adineko mutiltxo beltzaran bat dago eta begi beltzak dituen gizonazko bat. Denak hurbildu dira Laurarengana, eta eskua luzatu diote, traje griseko gizonazkoa izan ezik, amatxoren aulkian eseri baita ordenadorez idazteko.

—Zure zain geunden —esan zion begi beltzeko gizonazkoak.

—Laura duzu izena, ez da? —mutiltxoak.

Laura asaldatzen hasita dago.

—Baina, nortzuk zarete zuek et zer egiten duzue hemen?


—Geure burua aurkeztu beharko dugu, gure adiskidea ez beldurtzeko —esan zuen mutikoak—. Ni Kevin naiz eta Boli Kostakoa naiz...

—Afrikakoa? —Lurak harrিতта. Afrikan bizi al zara? Eta nola etorri zara nire etxeraino?

—Bada, bide luzea egin behar izan dut... baina horrek ez du axolarik. Gu denok etorri gara oso urrutitik, zu ezagutu nahi baikenuen.

—Eta zergatik ibili zarete hainbeste ni ezagutzeko? —berriro Lurak.

—Bada... gauza asko dauzkagu hemengo jendeari kontatzeko. Nik, adibidez, nire familiak kakaoa lantzen duela kontatu nahi dizut. Eta badakizu zergatik? Kakaoren haziez egin delako urtebetetze-eguneko pastelaren txokolatea.



—Hala da —esan zuen azal iluneko emakumeak—. Pastel hau, hain gustagarria dirudiena, mokazkoa da, hau da, kafe eta txokolatezkoa. Baina, ba al zenekien kafea nire herrian landu dela? Beno, ni Merchae naiz eta Tanzaniakoa naiz.

—Ni Alizia naiz, Txiletarra, eta fruta biltzen ibiltzen naiz —esan zuen hile gorribeltzeko emakumeak.

—Beraz, zuk jaso zenituen mazedoniako mangoak eta papayak —esan zuen Laurak, zerbait ulertu nahirik.

—Bai, nik jaso nituen. Mota askotako frutak biltzen ditut, eta gero munduan zehar bidaltzen dituzte. Oso gozoa da gure fruten usaina eta zaporea, ez da? Gainerakoek baietz esan zuten eta begi beltzeko gizonezkoak bere burua aurkeztu zuen:

—Ni Thach Kia naiz, eta Vietnamen bizi naiz. Nire emazteak eta biok itsaskiak hazten ditugu.

—Eta nola hazten dira itsaskiak?


—Urmael batzuetan hazten dira itsaskiak, erosteko tamaina hartzen duten arte. Gau batzuetan etxola batean lo egiten dut, urmalean bertan, itsaskiak zaintzeko, haurtxoak balira bezala —esan zuen Thach Kia-k, irribarre zabala erakutsiz. Denak barrez hasi dira, traje griseko gizonezkoa izan ezik, hura ordenadorean ari baita.

—Egia esan, lan asko egin arren, gauzak ez doaz ondo. Herri aberatsek zerga handiak ezartzen dizkigute, itsaskia haiei saltzearren —esan zuen Thach Kia-k, serio samar.

—Bai, nire familia ere ez dabil oso ondo —esan zuen Kevin-ek—. Nire herria kakao-ekoizlerik handienetarikoa da. Guri esker jaten dute txokolatea Europan. Baina aitatzok dioenez, gero eta gutxiago ordaintzen digute herrialde aberatsek, kakaoaren truke...

—Arazo berbera daukagu Tanzanian —Merchae-k—. Gero eta gutxiago ordaintzen digute urterik urte, kafe-kilo bakoitzeko. Horregatik, eskola utzi behar izan zuen nire alaba nagusiak. Eskolako materiala eta liburuak erosteko haina dirurik ez dugu.

—Bada, guri oso gutxi ordaintzen digu fruta-enpresak —Aliziak—. Eta hori bakarrik ez. Askotan gaixotu egiten gara, fruta-arbolentzako erabilitako ongarririk oso arriskutsuak baitira osasunerako...



—Honek ez dauka horrela jarraitzerik! Hau bezalako pertsonak dira gure egoeraren erantzuleak —esan zuen traje griseko gizona begira eta seinalatuz.

Holako salaketaren aurrean, kolpez altxatu zen gizona trajeduna...

—Holaxe da, bai, gizona hau enpresa handi baten jabea da, multinazional baten jabea —esan zuen Thach Kia-k—. Bera bezalako enpresa-gizon askok zapalduta gauzkate, gero eta gutxiago ordainduz gure produktuen eta lanaren truke.

—Zuek gero eta aberatsagoak zarete, eta gu gero eta pobreagoak —esan zion Aliziak enpresa-gizonari haserre.

Traje griseko gizona begira paratu dira denak, eta hura urduritzen hasi da:

—Momentu bat, gizon-emakume agurgarriok. Esan dizuet lehen, enpresen errua ez dela. Nazioarteko merkataritzaren jokoan gobernuek ezartzen dituzte prezioak. Haiei eskatu kontuak...

—Gobernuek eta enpresek! —erantzun zion Merchae-k, gero eta beroago.

Ahotsak gero eta ozenagoak ziren. Denek daukate esateko zerbait. Laura haiei begira dago. Handia da tentsioa, eta goraka doa. Enpresa-gizona estutzen hasi da. Bat-batean, ideia bat eduki zuen animoak lasaitzeko:

—Momentu bat, adiskideok. Ez dugu ezer irabazten gure artean mokoka arituz. Hemen ez dugu arazoa konponduko eta, gainera, etxearen ugazaba esna dezakegu.

—Egia da —esan zuen Kevinek, pasillora daraman ateari begira—, Lauraren gurasoak haserretu egin daitezke.

—Izan gaitzen burutsuak. Hemen gaudenez, eta denak urrutitik etorriak, zergatik ez dugu baliatzen gure gonbidatzailearen urtebetetze-eguna ospatzeko?

Laura aho-zabalka hasi da, zerbait esan nahirik-edo, baina enpresa-gizonak moztu egin dio:

—Zergatik ez gaituzu pastel-zati bat hartzera gonbidatzen? —esan zion—. Gero lasaiago segituko dugu hitz egiten.



—Ederki, pastela jan eta ahotsa jaitsi dezakegu –Aliziak–, baina hau ez da horrela geratuko. Gure galdera guztiei erantzuna ematea nahi dugu.

Laurak ez daki zer egin. Gurasoak haserretu egingo al dira pastela jaia hasi aurretik ebakitzen badu? Eta amonak, zer esango zuen amonak? Gero, ordea, bere anaiarekin jostailu bat dela-eta amatxok dioena gogoratu du: “Haurrak, partitzen ikasi behar duzue”. Azken finean, pertsona hauek oso urrutitik etorri dira bera ezagutzeko. Zalantza-izpi gehiagorik gabe, Laurak, labana hartu du, pastela ebakitzeko. Baina egiteko zorian dagoela, eta ezer-tarako denborarik eman gabe, labana hartu dio enpresa-gizonak:

—Utzi niri, neska. Nik neuk banatuko dut.

Trebezia handiz erdibitu du pastela. Gero, zati bat hartuta, beste bost zati berdinetan partitu du pastela; Laurak ere izan du berea. Banaketa egin ondoren, enpresa-gizonak koilarea hartu eta azpilean dagoen beste erdia irentsi nahi izan du. Gainerako pertsonak kexuka hasi dira:

—Banaketa hau injustua da!

Enpresa-gizonak azalpenak eman nahi ditu:

—Beno... zera... nik... ikusi... Azukrea birfindu eta txokolatea eta kafea prozesatzen diren lantegietako jabea naiz. Ulertuko duzue, gastu asko ditut eta lan handia, beraz pastelaren zatirik handiena dagokit. Beraz, zuen baimenarekin... —pastela hartu eta kanpora irtenda, atea finkatu du—.

—Hori ez da justua –Laurak asaldaturik.

Gainerakoak marmarka hasi dira, denak batera. Enpresa-gizonen ihesak ezustean harrapatu ditu...


Haserretuenak Laura eta Kevin dira, eta danbadaka hasi dira kanpoko atearen kontra, oihuka: Ez da justua! Ez da justua!

Gero eta ozenagoak dira oihuak, eta indartsuagoak kolpeak. Azkenean...

Laurak begiak ireki eta aitaxo ikusi du, bera astintzen duela. Esnatzen delarik, besarkatuz:

—Zorionak, Laura! Ametsetan, ala?

Iritsi da eguna! Festa ospatzera, lehengusu-lehengusinak, auzoko eta eskolako lagunak etorri dira. Laura zoriontsu dago.



Primeran pasatzen ari dira; lehenik, aspertu arte ibili dira jolasean, gero pizza, enpanada, kroketak, ogitartekoak eta mazedonia irentsi dute. Orain pastela jateko txanda da. Laurak gaueko ametsa du buruan jira-biraka. Hain erreala zirudien!

Amona Lolak pastela hartu, kandelak piztu et mahai gainean ipini zituen haurren zalapartaren erdian. Juan da urduriena:

—Putz egin, Laura, putz!

Pastela ez da Laurak ametsetan ikusitakoa bezalakoa. Amonak keinu bat egin zion belarrietara esanez:

—Nik ere badut sekretutxo bat!

—Zer sekretu, amona? —galdetu zuen Laurak.

—Beste pastel bat egin behar izan dut goizean. Atzokoa desagertu egin da. Atea zabalik zegoen. Seguruenik katuren batek jan du. Ez du ezertxo ere utzi!

Laurak, harriturik, gauekoa azaldu nahi dio amonari...; baina ez dago azalpenak emateko denborarik: kandelak amatatzen ari dira. Amona irribarrez begiratu zion lobari, eta mahaiaren ertzean eseri zen.

Denen artean Kantatu zuten Laurarentzako zorion-kantua; haurrek, aita-txok, amaxok, Juanek eta amonak. Eta amonak ertzetik:

—Eskatu gurari bat, Laura!

Laura hunkituta dago; hamar urte, hamar kandela sutan, maite dituen pertsonak... Bai, arrazoi zuen amonak: une magikoa da hau. Begiak itxi eta bere lagun berriak gogoratu ditu; gaueko bisitariak, alegia.

Eta orduan... oso gurari garrantzitsua eskatu zuen Laurak.

Lorategiko txokoren batean iratxoak kezka entzun zuten. Lauraren guraria: "Oraingoan laguntza beharko dugu!"

Adiskide berriak Laurarentzat

- Osa ezazu pertsonaia bakoitzari buruzko informazioa



Izena:

Merchae

Jaioterria:

Zeregina:



Izena:

Jaioterria:

Zeregina:



Izena:

Txile

Jaioterria:

Zeregina:



Izena:

Thach Kia

Jaioterria:

Zeregina:



Izena:

Jaioterria:

Zeregina:



Izena:



Jaioterria:

Zeregina:

- Bila itzazu Peters-en mapa batean gure pertsonaien jaioterriak.

Pastela banatzen

- Zati ezazu pastel hau enpresa-gizonak egindako partiketaren arabera. Pertsonaia bakoitzari dagokion atalari kolore bat eman.
- Zati ezazu pastel hau sei pertsonaien artean, atal berdinak eginez. Lehen pasteleko zatiei emandako kolore berberak eman zati bakoitzari.



- Zein da banaketa bietatik justuena? Ingura ezazu zirkulu batez eta azaldu zergatik.



- Zure ustez, zer gurari eskatu zuen Laurak urtebetetze-egunean?

Erosketak egiten



*Gaur merkatura joango gara
erosketak egitera.
Etorri nahi al duzu gurekin?*

- Orain merkatura jolastuko dugu.
Jolasa amaitu ondoren, erositako eta saldutako produktuen zerrenda egin.

Elur-ekaitza



Mendira joan zara, familiarekin egun batzuk pasatzera. Azken hiru egunetan elurra da, eta ezin da etxetik irten. Janaririk ez duzue. Irratian esan dutenez, ekaitza baretu egingo da ordu batzuez, baina auskalo noiz arte iraungo duen.

Aitatxok janari bila laguntzeko eskatu dizu, herririk hurbilenera, hau da, zortzi kilometrora. Errepideak elurrez beterik daudenez, oinez egin behar duzue joan-etorria, motxilak jakiz beteta. Hogeituro baino ez dituzue, eta ez dago bankurik dirua ateratzeko. Pentsa ezazu ondo zer erositako duzun, eta egin erositakoen zerrenda.

- Jokoa amaituta, jar itzazu zerrenda batean egoera horretan erositako eta saldutako produktuak. Gero konpara ezazu aurreko jarduerako zerrendarekin.

Nire familiak erosi, nire familiak saldu...



Hainbat produktu ikusiko dituzu ondoko orrialdeetan, erosi edo saldu egin daitezkeenak. Bila itzazu letra-zopan erlazioa daukaten hitzak.



E



O



E



J



A



L



M




E

- Zure familiak erosten dituen produktu edo zerbitzuak zirkulu gorri inguratu, eta zirkulu urdinez, zure familiak saltzen dituenak.
- Zure gurasoek dirua hartzen al dute egindako langatik? Horrela bada, zerikusirik ba al du horrek merkataritzarekin?

E	M	D	A	T	B	X	U	J	O	S	T	A	I	L	U	A
L	S	Y	R	V	O	K	R	G	O	P	O	R	R	A	K	A
I	C	K	R	N	Y	W	A	H	A	W	O	T	U	C	G	E
K	Z	U	O	K	Q	O	E	O	V	R	D	R	P	N	A	R
A	N	A	P	L	G	J	A	R	K	V	R	M	R	F	S	O
G	X	N	A	A	A	S	R	R	R	A	N	A	T	A	A	D
A	V	S	K	A	U	R	U	B	I	L	T	A	I	B	K	A
I	A	T	W	Q	K	A	A	U	K	I	D	E	M	O	P	N
A	N	T	Z	E	R	K	I	A	B	I	O	E	N	Z	A	E
K	E	T	X	E	B	I	Z	I	T	Z	A	G	J	I	H	D
E	L	E	K	T	R	I	Z	I	T	A	T	E	A	S	O	R
K	A	N	S	E	R	T	O	R	T	K	E	L	E	S	S	O




G




E



O



E



A



G



U



O

- Ondorengo laukietan, marraz itzazu zure familiak erosi edo saltzen dituen beste produktu edo zerbitzu batzuk.

Rose Marie eta Momena

Irakur itzazau ondorengo istorioak

Rose Marie dut izena



© Lourdes Cusó, Intermon Oxfam

Tanzaniako herri ttiki batean bizi naiz, Mkuu-n. Zortzi anaia-arreba dauzkat, baina ni naiz ttikiena. Eskolara joaten naiz, baina etxetik zortzi kilometro-ra dago. Nire familiak kafea lantzen du.

Nik ezin dut ulertu zergatik ordaintzen diguten hain gutxi —gero eta gutxiago— kafearen truke.

2000. urtean 1600 txelin ordaindu zizkiguten kilo bat kafe bakoitzeko; 2001ean, 500 eta 2002an 400 bakarrik kiloko.

Irabazten dugunarekin ezin dugu janaria erosi eta familiako premiak ase. Gainera, ezin ditugu insektizidak erosi, eta kafe-landareek lehen baino askoz gutxiago ematen dute.

Momena naiz

Dhaka-n bizi naiz, Bangladesh-en. Lehen herri ttiki batean bizi nintzen, baina nire familiak hiriburuan kokatzea erabaki zuen, lana lortzearren. Amak jantziak egiten dituen ehun-fabrika batean hartu zuten. Soldata ez zen oso handia, baina diru hori premiazkoa zen familiarentzat. Auzoko eskola batean hasi nintzen ikasten, eta berehala egin nituen lagunak.


Orain hilabete gutxi batzuk, ama eta beste zenbait langile kanpoan utzi zituzten, lanik gabe. Uga-zabek zioten, ezin zietela lanik eman.

Nik eskola utzi behar izan dut, eta lana bilatu amari laguntzeko. Laster eskolara itzuli nahi nuke...



© Intermon Oxfam

Munduan barrena




*Inoiz pentsatu al duzu nondik datorren zure arropa?
Praka bakero batzuen nondik norakoa erakutsiko dizut.*

Praka bakeroen istorioa

Ipswich (Britania Handia) hiriko denda handi batean salgai daude praka bakero batzuk, Lee Cooper markakoak. Honaino etorri aurretik, bidaia luzea egin dute praka horiek, munduan barrena.

Duela gutxi Frantziara iritsi ziren, baina Frantziara Tunisiatik iritsi ziren. Tunisian, Ras Jebel izeneko hirian dago praka-fabrika. Lantegi hartan 500 emakumezko lan egite dute, oso arin eta egun osoan josten, praka bakoitzeko atalak josten.

*Baina... nondik dator prakak egiteko oihala,
nondik botoiak eta kreamailera?*



Praka-bakeroak egiteko kotoia Benin-en lantzen da, baina patrikak egiteko kotoia Pakistanen.


Oihala Italian egiten da, eta Alemanian egindako tindu berezi batez tindatzen da. Tunisiako lantegira iristean, oihala Turkian dagoen amatatutako sumendi bateko pomiz harria erabiliz garbitzen da. Garbiketa-prozesu horretan tinduaren parte bat galdu egiten da eta ibaietara joaten da.

Prakak josteko hariak Ipar Irlandan egiten dira, eta Espainiako kolorez tindatzen dira.


Kreamailerak bi leku ezberdinetan egiten dira: Poliesterrezko xingola Frantzian egiten da eta metalezko hortzak Japoniako letoiz eginda dande. Botoiak eta loturak egiteko letoia Alemanian egiten da, Australiako eta Namibiako meatzetako kobrea erabiliz.

Azkenik, pieza guztiak batzen dira Ras Jebel-eko fabrikan. Handik dendarako bidea hartzen dute paka-bakeroek.

- Testua irakurrita, marka itzazu gorriz praka-bakeroen fabrikazio-prozesuan parte hartzen duten herrialde guztien izenak.




- Behatu mapa eta, koka ezazu dagokion tokian praka bakeroen ekoizpen-prozesuko etapa bakoitza. Gero, gezi urdinak marraztuz, seinala ezazu praka bakeroen joan-etorria eta osagai bakoitzarena.



- Hauexek dira praka-bakeroen fabrikazio-prozesuan eman behar izaten diren pauso batzuk. Zeintzuk diren asmatzeko, batu itzazu esaera bakoitzaren subjektua eta dagokion predikatua.

- | | | | |
|--------------------------------|---|---|--|
| Tunisiako lantegiko jostunek | ■ | ■ | ibaiak kutsatu eta landareak zein arrainak hiltzen du. |
| Harri-garbiketak | ■ | ■ | euro bat baino gutxiago irabazten du hilean. |
| Benin-go kotoi-ekoizle batek | ■ | ■ | osasun-arazo larriak dituzte mineral toxikoen erruz. |
| Namibiako meatzetako langileek | ■ | ■ | hiru pieza minutuko egin behar dituzte, eta hilean 180 euro irabazten dituzte. |



Seven empty rectangular boxes stacked vertically, intended for writing answers.

• Zer iruditzen zaizkigu egoera horiek?

Seven horizontal lines for writing answers.


Alternatibak asmatzen...

- Gure adiskideek bizi dituzten arazoak erakutsi dizkizute. Taldeka batuta, bila itzazue konponbide batzuk.



Enpresek mozkinen zatirik handiena daramate, eta nekazariei gero eta gutxiago ordaintzen digute.

Konponbide batzuk



Herrialde pobreek ezin badizkiete beren produktuak aberatsei saldu, herrialde pobreetako jendeak ez du lan-iturririk izango.

Konponbide batzuk



Gure kafea landuz irabazten dugun dirua Ez da nahikoa gure seme-alabek eskolara bidaltzeko.

Konponbide batzuk



Askotan erosten ditugu behar ez ditugun gauzak. Kontsumismoak kutsadura-arazoak sortzen ditu, eta lan-baldintza kaskarrak Hegoko herrialdekoentzat.

Konponbide batzuk

Honek aldatu beharra dauka

• Hegoan

Nazioarteko merkataritzak eragiten dituen egoera injustuak direla eta, Hegoko jendea antolatu egiten da haien eskubideak defenditzeko.

Irakur ezazu arretaz

Neska-mutilen salaketa

Momena-k bezalaxe Bangladesh-eko neska-mutil askok eskola utzi egin behar izan dute, aita edo ama ehun-fabrikatik kanporatua izan delako. Kanporatze horien arrazoia hauxe da, alegia Europak eta Ameriketako Estatu Batueek ehun-produktu gutxiago erosten dizkiotelako Bangladesh-i.

2002ko apirileko 28an, Dhaka-ko neska-mutilek giza katea egin zuten egoera hau salatzen.



© Oxfam Internacional



© Zed Nelson

Nekazarien antolakuntza

Petit-Bourg-du-Borgne herrian (Haiti), kafe-ekoizleak konturatu ziren kafe-esportatzaileek eramaten zutela mozkinaren zatirik handiena. Kooperatiba sortu eta kafea zuzenean saltzen hasi ziren Europako merkataritza justua bultzatzen duen marka bati.

Esperans Cadet nekazariak honela dio: "Prezioak baxuak zirenean, kafe-libra bakoitzeko hartzen genuen diruaz ezin genuen arroz-katilu bana erosi. Gure seme-alaben hezkuntza ezinezkoa zen. Orain, kooperatibari esker, etekin duinak jasotzen ditugu".

• Iparrean

Europar gero eta jende gehiagok bultzatzen du merkataritza justua. Merkataritza-modu horri esker, Hegoko jendeak prezio egokiz saldu ahal dituzte beren produktuak, eta duintasunez bizi daitezke. Merkataritza justuko produktuak hainbat dendatan eta supermerkatu batzuetan aurki ditzakezu.



© Intermon Oxfam

Ikus www.IntermonOxfam.org eta gauza gehiago ikasiko dituzu merkataritza justuaz.

Zer egin dezakezu zuk?

- Egin ezazu zure autoerretrotua eta idatzi alde batean, lan-koaderno honetan aurkitu dituzun gauzak. Beste aldean, berriz, munduan milioika lagunek bizi duten egoera konpontzeko bururatzen zaizkizun ideiak.